

Errusiar gizarte berria: aldaketa politiko eta ekonomikoen ondorio sozialak Sobietar Batasunaren osteko Errusian

Mikel Pozo Flores

Historian lizentziatua

(UPV-EHU)

esparmikel@hotmail.com

Laburpena: Artikulu honen egilea aztertzen saiatzen da Sobietar Batasunaren erorketaren osteko Errusiako aldaketa politiko eta ekonomikoek sorrarazi zuten gizarte berria . Analisi hau egiteko Mendebaldeko historialarien ikuspuntua ahal den neurrian baztertzea proposatzen du. Horrela, Errusiako gizartearen barne-dinamikak errealitate berri bat bezala ulertu ahal izango dira eta ez soilik krisi sakonean sartuta dagoen herrialde baten ondorio bezala.

Abstract: The writer of this article tries to analice the new society of the Post Sovietic Russia which was originate as a consequence of the political and economic changes. For that he proposes to put the European point of view out because like

that we can be able to understand the dynamics of the Russian society as a new reality and not only as a result of a deep crisis.

Sarrera

Lan honetan Sobietar Batasunaren erorketaren osteko Errusiak jasandako aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak aztertzen saiatuko gara. Helburu nagusiak bi dira. Alde batetik Yeltsin-en garaian gertatutako aldaketa nagusiak deskribatzea eta beroriek eragindako ondorio sozialak aztertzea. Bestetik, errusiar gizarte hori definitzen saiatzea.

Errusiar Federazio independentearen lehen bi urteetan (1992-1993) sistema politiko eta ekonomiko berriak finkatu ziren. Horien ondorioz sortutako gizarte oraindik berregituratze-prozesuan dago. Beraz, azken horren azterketa egiteko erabili dugun kronologia gaur egun arte luzatu dugu.

Gaur egungo errusiar gizartea, oro har, nahiko ezezaguna da mendebaldarren artean. Sobietar gizarteak esperantzak pizten zituen bitartean, eta ziur asko horregatik jende askori erakargarria egiten zitzaion eta zaio, gaur egungo Errusian argi guztiak itzalita daude eta bidea oso iluna da gehiengoaren bizi-baldintzen hobekuntzari eta demokraziaren finkapenari dagokienez. Hala ere, gizarte berri hau eratze-prozesuan dago eta pixkanaka sistema orekatzen eta egituratzen joango da. Horrek ez du esan nahi gizarte justuago baterantz abiatu denik, daraman bidea justu kontrakoa baita. Baina gure eginkizuna gertakari historikoak azaltzea da, ahal den heinean baloraziorik egin gabe, gaur egungo gizarte errusiarraren funtzionamendua aztertzeko. Hori lortzeko mendebaldar ikuspuntua baztertu beharra daukagu. Mendebaldeko historialariek Errusiako sisteman krisi sakona baino ez dute ikusten, eta kritikatu egiten dute demokraziaren eta kapitalismoaren ereduak beraienetatik ezberdinak direlako.

Errusiar arazoetara hurbiltzen diren historialariek batik bat bi gai dituztenez buruan, hots, kapitalismoaren eta demokraziaren ezarkuntza eta garapena, beraien analisi historikoa baldintzaturik dago. Ondorioz, egungo Errusiar buruzko historiografiak gabezia bat dauka, hango gizarteari buruzko analisi edo ikerketak oso urriak direla.

I-Trantsizio politikoa sobietar erara

Atal honetan Sobietar Batasunaren erorketatik Errusiar Errepublikaren erabateko finkapenera arteko aldia aztertuko dugu. Izenburua ez da funtsik gabea, ikusiko dugun bezala trantsizio errusiarrak antzekotasun batzuk baititu aurreko erregimen komunistarekin alderatzen badugu. Gure iritziz, antzekotasun horien azalpen garrantzitsuena trantsizio hori zuzendu zuen agintariaren jatorrian kokatu behar dugu.

1.1-Boris Yeltsin-en karrera politikoa Sobietar Batasunaren erorketaren garaian

Boris Yeltsin Sverdlosvsken (Errusia) jaio zen 1931. urtean. Ikasketak Sobietar Batasunean burutu zituen eta karrera politikoa Alderdi Komunistaren barnean garatu zuen Politburoko kide izatera heldu zelarik, garai hartako botere-organo gorenera. 1987an bertatik baztertua izan zen Gorbachov-en politika kritikatzeko zuelako. Lehendik ere ospea zeukan politikaria zen arren, momentu horretatik aurrera helduko zen bere karrera eta ospearen gailurrera.

Yeltsin Alderdi Komunistaren Komite Nagusiko kide eta Eskualde Arteko Taldearen zuzendaria bazen ere, erreforma azkarrago eta sakonagoak egin behar zirela aldarrikatzen zuen behin eta berriz. 1990. urtean Errusiar Federazioko Sobiet Gorenerako hauteskundeetan garaile irten zen. Horren buru zela Gorbachov-i aurre egiteko esparru egokia aurkitu zuen, eta horretarako, ikuspuntu politikotik aukera errusiarra jokatu zuen, hau da, nazionalismo errusiarrarena¹.

Urte berean, Letonia, Lituania eta Estoniako errepublikek independentzia aldarrikatu zuten Sobietar Batasunaren desintegrazio-prozesuari hasiera emanez. Testuinguru horretan, Boris Yeltsin-en ekimenaren ondorioz, Errusiar Federazioak burujabetasuna aldarrikatu zuen Uzbekistani jarraituz. Neurri batean, nazionalismo errusiarraren buru jarri zen Yeltsin.

1991ko martxoan Errusian egin zen erreferendumean parte-hartzaileen % 70ek Federazioak Presidente bat izatearen alde egin zuen. Ondorioz, ekainaren 12an hauteskundeak ospatu ziren eta Yeltsin garaile irten zen botoen % 57rekin. Horretaz gain, Moskuko eta Leningrad / San Petesburgoko alkateak ere Yeltsinen ideologiatik nahiko gertu zeuden bi kidek lortu zituzten, Gavriil Popov-ek eta Anatolii Sobchak-ek. Hortik ondoriozta daiteke errusiar gizarteak aldaketa bat nahi zuela eta Yeltsin izan zela horretarako aukeratutako gizona, neurri handi batean toki egokian zegoelako momentu zehatzean.

Presidentzia sortu zen une beretik, presidentearen eta legegilearen arteko arazoak piztu ziren eta Boris Yeltsin-en agintaldi osoan zehar iraungo zuten. Baina problema horiek ez ziren oztopo izan 1991ko abuztuan komunista kontserbadore (komunismoa mantentzearen aldekoak) batzuek emandako estatu-kolpean Yeltsin-ek parlamentuaren laguntza guztia izan zezan. Tradizionalki estatu-kolpe horren hutsegitearen atzean herriaren mobilizazio masiboa egon zela pentsatu izan dute historialariek. Baina Carlos Taibo-k planteatu du² eragile garrantzitsuena izan zela gertatzen ari zen elite politiko zaharren berrintegrazio-prozesua, agintari zaharrek eredu berrian beren lekua mantentzeko bide eta aukerak aurkitu zituztelako.

¹ Service (2000: 452).

² Taibo (1995: 16).

Aipatutako estatu-kolpea oso gaizki prestatua egon zen eta buru zirenak (Estatuko Komiteko kideak) ez ziren muturreraino eramateko gai izan. Baina gorago aipatu bezala, bertatik Boris Yeltsin-ek atera zuen etekina. Tankeak Errusiar Federazioko Sobiet Gorenaren eraikineraino eraman zituzten (Etxe Zuria ere deitutakoa) baina bertan milaka herritarrek, barrikada batzuek eta Boris Yeltsin-ek itxaroten zituzten. Yeltsin-ek aurre egin zien tanke bati kateatuz. Horretaz gain, Estatuko Komiteko hainbat kiderekin zituen harremanez baliatuz, kolpistek Sobiet Gorenaren eraikina asaltoan har ez zezaten konbentzitzen saiatu zen. Azkenean, abuztuaren 21ean operazioak bertan behera gelditu ziren. Dударик gabe Yeltsin izan zen pertsonaia nagusia gertakari horretan eta haren ospeak gora egin zuen era paregabe.

Urte bereko abenduaren 25ean Gorbachov-ek diskurtso labur bat eman zuen telebistaz non bere ezinegona eta esperantza azaltzen zituen:

«Dejo mi puesto lleno de intranquilidad. Pero también con esperanza, con fe en vosotros, en vuestra sabiduría y vuestra fuerza de espíritu. Somos los herederos de una gran civilización, y ahora depende de todos nosotros que pueda resurgir y darnos una vida nueva, moderna y próspera»³

Sei egun geroago Sobietar Batasuna desagin zen (Gorbachov kargu gabe geldituz) eta guk aztergai dugun Errusiar Federazioaren bilakaera historikoa hasi.

1.2-Errusiar instituzioen eraketa eta bilakaera politikoa

Arestian aipatu bezala, Boris Yeltsin izan zen errusiar trantsizioaren gidaria, ekonomian komunismotik kapitalismora, eta politikan *instituzio demokratikoen* sortzailea izan zen. Ondorioz, erakunde horien ezaugarri batzuk garai hartako presidentearen izaera eta jatorriarekin lotu ditzakegu.

1993. urterako sistema berriaren eraikuntzarako oinarriak ezarrita zeudela esan daiteke. Jarraian gertakari politiko nagusiak aztertuko ditugu eta ondoren horiek izandako eragina aztertzeraz pasatuko gara.

Yeltsin-en agintaritzaren ezaugarri nagusia beraren eta parlamentuaren arteko gatazka eta tirabirak izan ziren. Estatu-kolpearen ostean parlamentua desagiteko aukera izan zuen, baina ziur asko handik jasotako laguntza zela-eta ez zuen egin. Horren orde, dekretu presidentzialen bitartez gobernatzea erabaki zuen erreformak aurrera eramateko bide segurua zelako. Parlamentuko alderdien aurkakotasuna pairatu zuen, Alderdi Komunista erresistentziaren buru izan zelarik. Komunistek hauteskundeak deitzea eskatzen zioten presidenteari, baina Yeltsin-ek ez zuen hauteskunde presidentzialetara deitu nahi⁴. Azkenean, kontsulta erreferendum bat egin zen. Bertako galderak Yeltsin-en

³ M.S. Gorbachov, *Dekabr'-91. Moya pozitsiya*, 119-120orr. R. Servicetik hartua (2000: 468).

⁴ Service-ren (2000: 472) ustez, Yeltsin-ek hauteskundeak ez deitzea bi arrazoirengatik aukeratu zuen: alde batetik bere izaera autoritarioagatik, eta bestetik, elite politiko, ekonomiko eta nazional lokal zein zentralak emaitzak distorsionatzeko gai zirela uste zuelako. Andreff-en (2004: 40) iritziz, 1993ko krisiaren ostean dekretuz gobernatzera behartua ikusi zuen Yeltsin-ek bere burua horrek sinesgarritasuna kendu ziolarik, azken hori adostasun sozialaren bitartez lortzen baita. Baina ikusi dugun bezala,

politika balioestera zeuden zuzenduta eta, oro har, haren irudiaren aurkako jarrera nagusitu zedin. Baina emaitza Yeltsinen-tzat positiboa izan zen bere politika berretsi eta figura indartua irten zelako⁵.

Emaitza horien ostean, presidentearen eta parlamentuaren arteko liskarrek jarraitu egin zuten harik eta 1993ko irailaren 21ean Yelsin-ek parlamentua desegin eta hauteskunde orokorrak eta konstituzio-erreferenduma deitzea erabaki zuen arte. Presidenteak ez zeukan hori egiteko legalitatea alde eta erantzun gisa diputatuak “Etxe Zurian” itxi ziren. Yeltsin-ek, orduan, parlamentuaren eraikina bonbardatzea erabaki zuen. Azkenean barnean zeudenak errenditu egin ziren.

Hauteskundeak ospatu ziren eta alderdi irabazleen artean ez zegoen Yeltsin-en aldekoa zena, beraz, oposizioak jarraitu egin zuen. Baina konstituzioaren erreferendumaren aprobazioa gertakari garrantzitsuagoa izango zen. Konstituzioa indarrean jarri zen erabilitako bitartekoak nahiko ilunak izan arren (legeak eskatzen zituen baldintzak ez ziren bete, iruzurrak egon ziren...). Horren izaera oso presidentzialista zen, presidenteari botere maila oso altua ematen baitzion, parlamentua ostera nahiko jota eta bigarren maila batean utziz.

Sistema berriak bere sustraietan erregimen komunista zaharra gogorarazten digun hainbat elementu ditu. Alde batetik, Boris Yeltsin-ek gidatutako prozesua izatean, Errusia komunistan hezi eta bere karrera politikoa Alderdi Komunistaren barnean aurrera eramandako gizona izanik, bere politika egiteko moduak bazeukan kutsu autoritario bat⁶. Konstituzio presidentzialista horrek ezaugarri hori agerian utziko luke. Horrek ahalbidetuko zuen Yeltsin-en figuran botere-pilaketa bat gertatzea zeinek instituzio-organoen funtzionamendu egokian eragin handia izango zuen. Horretaz gain, Yeltsin-en konpromisoa demokraziarekin ez zela batere sendoa agerian gelditu da, adibidez, botere-banaketa ez zuelako errespetatzen⁷. Gure ustez, sistema sobietarraren aurrean botere politikoa eskuratzeko alternatiba demokrazia zenez, horretaz baliatu zen, baina bera ez zen demokrata. Hainbat autorek adierazi duten bezala, eta haren politikan izandako norabide-aldaketek frogatzen duten bezala, Yeltsin oportunistak bat izan zen, zeinek politikan bizirauteko sena zeukan nahiz eta bere politikek askotan huts egin⁸.

lehenagotik ere era berean gobernatzen zuen.

⁵ Taibo (1995: 21).

⁶ R. Service-k (2000: 474) dio «Yeltsin utilizó los métodos comunistas para borrar las huellas de la época comunista». Horretaz gain, kritikatu zituen Alderdi Komunistaren buruen jarrera berbera zeukan, hau da, bere bezeria jartzen zuen kargu politiko garrantzitsuetan eta bere karguan egoteak eskaintzen zituzten pribilegioez gozatzen zuen; beti joaten zen limusinan, bere andreak ez zuen errenkadan itxaron behar erostetak egiteko eta bere tenis kluba fundatu zuen (482. or).

⁷ Taibo-ren (1999: 221) iritziz, denbora pasatu ahala gehiago nabaritu da gertakari hori.

⁸ Reddaway eta Glinski (2001: batez ere 31 eta 36). Nahiko ikuspegi negatiboa eskaintzen dute Yeltsin-en garaiko Errusiari buruz eta Estatuak eraikitzeke politikak zein arazo sozialak konpontzeko bideratuta zeudenek huts egin zutela azpimarratzen dute. Arazo sozialak ez zituela konpondu nahiko argi dago, baina Estatuak eraikitzeke gai izan zela ezin da ukatu (nahiz eta nahiko ahula izan). Beste kontu bat da nolakoa zen, eta hemen ere Yeltsin-en arrasto edo eragina nahiko argia da. Beraz, ezin dugu Mendebaldeko eredu demokratikoetan pentsatuz aztertu.

II-Trantsizio ekonomikoa?

Atal honetan, era nahiko laburrean bada ere, errusiar historiaren aldi hau ezaugarritzen duen elementu garrantzitsuenetako bat jorratuko dugu, krisi ekonomikoa. Aurreko garaitik zetorren zerbait bazen ere, egoera ekonomikoak txarrera egin zuen era nabarmenean Sobietar Batasunaren hondoratzearen ostean⁹.

II.1-Politika ekonomikoa

Yeltsinen agintaldiaren lehenengo garaian aurrera eramanean zen politika ekonomikoak izugarritzeko eragina izan zuen ekonomian. Puntu honetan kokatu behar dugu atal honi izenburua ematen dion galdera, trantsizio hitza normalean prozesu baten ondorioz sortutako aldaketa deskribatzeko erabili ohi baita. Horretaz gain, erreforma hitzaren erabilera nahiko arrunta izan den arren, bai garai haietan, zein historialarien artean, komeniko litzateke benetan erreformak egin ote ziren aztertzea.

Yeltsin-ek Gorbachov-i erreforma sakonagoak eskatzen zizkion baita era bizkorragoan egitea ere. Dударик gabe, eskakizun horiek baldintzatu zuten Errusiar Federazioaren lehenengo urteetan aurrera eramanean zen politika ekonomikoa. Politika hori oso lotua egon zen Yegor Gaidar politikariarekin, Yeltsin-en kolaboratzaile estua izan zena lehen garai hartan¹⁰.

Gaidar neoliberala zen eta ahalik eta azkarren merkatu-ekonomiara pasatu behar zela uste zuen. Bere “erreformek” kritika ugari jaso zuten eta segituan kendu zuten kargutik, baina ordurako atzera bueltarik izango ez zuten aldaketa batzuk martxan jarrita utzi zituen. Haren politika Txoke Plana izenaz ezagutzen da, sobietar garaian aurkeztutako Shatalin Planean oinarritzen zena (martxan jarri ez zena erreformistegia zelako), eta Nazioarteko Diru Funtsari aurkezteko zegoen sortua. Horren bitartez, ekonomia sobietarretik, non Estatuak ia guztia kontrolatzen zuen, merkatu-ekonomia batera pasatu nahi zen. Horretarako beharrezkoak ziren hainbat mekanismo ezarri ziren, eskaintza eta eskaria, pribatizazioak, liberalizazioa, Estatuaren zorra jaisteko ahalegina eta bere partaidetza murriztea ekonomian... Erakunde sobietarrak deuseztatu egin ziren eta horrek sekulako kaosa sortu zuen. Erikson-ek 1992-1993. urteetarako politika konkretu horren eragina deskribatzen duten datu negatibo ugari biltzen ditu, depresio

⁹ Egoera horretatik etekina aterako dutenentzat izan ezik.

¹⁰ Boris Yeltsin-ek 1991ko urriaren 28an parlamentuaren aurrean emandako diskurtsoak argi utzi zuen zein zen bere esperantza «A one-time changeover to market prices is a difficult and forced measure but a necessary one. For approximately six month, things will be worse for everyone, but then prices will fall, the consumer market will be filled with goods, and by the autumn of 1992 there will be economic stabilization and gradual improvement in people's lives». Reddaway eta Glinski (2001: 231).

ekonomikoa, finantza- eta moneta-kaosa, Estatuaren eta ekonomiaren desintegrazio orokorra eta egiturazko zein azpiegiturazko geldialdia¹¹.

Hala ere, erregimen komunistak zituen hainbat mekanismo mantendu egin ziren, adibidez, produktu batzuek Estatuaren monopoliopon jarraitzea. Yeltsin-ek 1993. urtean Gaidar bere kargutik kendu eta Chernomirdin jarri zuen. Azken horrek, era progresibo eta pausatuagoan izan bazen ere, kapitalismorako bidean lan egiten jarraitu zuen.

Baina politika hori ez zen debaldekoa izan, horren ondorioz lehendik zetorren krisia areagotu egin zen eta gizarteak hurrengo atalean aztertuko ditugun arazo sozialak pairatu zituen. Beraz, trantsizio ekonomikoa izan ote zen ala ez galderari, ezezkoa eman behar zaiola uste dugu. Izan ere, Gaidar-en garaian sobietar erakunde eta elementu gehienak kolpe batez ezabatu ziren. Era berean berrikuntza edo eraldaketa ugari martxan jarri ziren eta ez erreformak, historialari askok sostengatzen duten bezala¹².

II.2-Ekonomiaren adierazle eta ezaugarri batzuk: krisia

Yeltsin-ek bultzatutako aldaketek ekonomian oso eragin negatiboa izan zuten. Errusiako Estatistiken Komiteak (*Goskomstat*) dioenez, 1992 eta 1998 bitartean Errusiaren Barne Produktu Gordinak % 44 behera egin zuela dio. Hein handi batean, horren azalpena inbertsioen beherakadan aurkitu dezakegu, zeintzuek % 20 behera egin zuten zortzi urtean¹³.

Errusiar ekonomiaren emaitzak 1990etik 2001era bitartean		
Urtea	BPGren aldaketa (%) aurreko urtearekin alderatuz	Produktzio industrialaren aldaketa (%) aurreko urtearekin alderatuz
1990	3,0	10,1
1991	-5,0	8,0
1992	-14,5	18,0
1993	-8,7	14,1
1994	-12,7	20,9
1995	-4,1	3,3
1996	-3,5	4,0
1997	0,9	0,9
1998	-4,6	0,5
1999	-1,3	0,5
2000	-7,6	0,3
2001	-3,3	3,2

Hemen krisiaren faktoreak deskribatzea interesatzen zaigu eta ez hainbeste aldaketen zergatiak azaltzea. Izan ere, lan honen

Richard Erikson-i jarraitzen dio "The Russian economy since independence", In Lapidus (Zuz.), *The new Russia. Trubled transformation*. Westview, Boulder, 1995, 42. or. Gure iritziz behintzat, eskaintza eta eskaintzaren bitartez zuzenduko den merkatu bat ezartzea sobietar sistemari guztiz kontrajarra den berrikuntza bat da, elementu gutxi batzuk Estatuaren esku gelditzen badira ere. Sistema komunistatik kapitalistara ia-ia egun batetik bestera pasatu zela esan daiteke eta azken hori ondoren garatzen joan zen. Gaidar-ek ez zuen merkatu-sistema komunista erreformatu nahi baizik eta merkatu-sistema kapitalista ezarri. Antzeko ideia dute Deddaway-k eta Glinski-k (2001), zeintzuek liburuaren lehenengo atalean Yeltsin-en garaian burututako ekintzak ea erreforma edo eraldaketa izan zirenen planteatzen dituzten. Eta ekonomiari buruzko atalean errusiar agintariak aurreko ondarea ekonomikoa irauli egin zutela esaten dute (232. or eta hurr.). Horretaz gain, Yeltsin-ek berak ere Gaidar-en politikari buruz honako hau esan zuen: «Gaidar's reform secured macroeconomic change, namely the destruction of the old economy. It was a widely painful break, surgically crude, with the rusty grinding sound of pieces of old parts and mechanism being ripped out together with teh flesh, but the beak occurred. Most likely, it simply could not have happened any other way. We had virtually nothing to work with apart form Stalin's industry. Stalin's economy, adapted to the present day. And its make-up dictated precisely that sort of a break: over the knee. The system was destroyed in the same way that it was created», Sakwa (2002: 279).

¹³ Deddaway eta Glinski (2001: 249).

helburua gizartean izandako eraginak aztertzea da. Atal honetan, oro har, Carlos Taibori jarraituko diogu¹⁴.

1992an gauzatutako prezioen liberalizazioak (lehen mailako beharrak asetzeko produktuak salbu, adibidez ogia, esnea eta gasolina) izugarrizko inflazioa eragin zuen. Lehenagotik bazegoen ere, 1992. urtean prezioak txikizkako salmentetan % 961,2 eta handizkakoetan % 2.525,2 hazi ziren. Hurrengo hilabete eta urteetako bilakaerak beheranzko joera bat erakusten duen arren, inflazioak oso altua izaten jarraitu zuen. Horren adierazle egokia soldaten bilakaera da: 1991n 770 errublo, 1992an 16.071, 1993an 140.000 eta 1995eko ekainean 495.000.

Prezioen, diru-eskaintzaren eta batez besteko soldaten igoera hilabeteko*								
	Kontsumo Prezioen Indizearen hazkundera (%)			Diru-eskaintzaren hazkundera			Batez besteko soldataren hazkundera (errublotan)	
	1992	1993	1994	1992	1993	1994	1992	1993
Urtarrila	245	26	18	12,3	19,4	5,3	1438	15690
Otsaila	38	25	11	11,9	10,0	6,1	2004	18672
Martxoa	30	20	7	13,7	17,0	9,2	2726	23559
Apirila	22	19	8	10,0	22,9	16,9	3024	30562
Maiatza	12	18	7	9,0	19,0	11,3	3672	37505
Ekaina	19	20	6	27,5	1,5	13,0	5067	47371
Uztaila	11	22	5	27,5	37,0	10,2	5452	55995
Abuztua	9	26	5	28,3	13,7	12,0	5870	65400
Iraila	12	23	7	31,9	3,3	5,7	7379	80900
Urria	23	20	15	26,7	10,6		8853	93000
Azaroa	26	16	14	5,5	8,3		10576	101495
Abendua	25	13	15	17,8	11,2		16071	140650

Horrekin batera aurrera eraman zen moneta-politika ez zela aproposena izan esan behar dugu. Alde batetik, Errusiako Bankuak diruaren emisioa nahiko maila altuan mantendu zuen, inflazioa areagotzen lagundu zuena. Bestetik, errubloa balio-galera bizkorra ari zen jasaten, 80ko hamarkadan dolarra 3-4 errublorengatik aldatzen zen bitartean, 1995ean 4.800gatik aldatzen zen. Azken fenomeno horrek eta industrialistek subsidioak mantentzeko zeukaten nahiak defizit publikoaren handitze nabarmena ekarri zuten. Gaidar-en garaian Estatuaren gastua % 50etik % 20ra jaitsi bazen ere, ondoren berriro ere hazi zen. Horretaz gain, kanpo zorra ere ezin dezakegu ahaztu.

Sistema-aldaketaren harira enpresen pribatizazioa ere bultzatu zen. Jabe talde bat sortu, gizartea merkatu-ekonomia batera bideratu eta produktibitatearen hazkundera sustatu nahi zen. Izan ere, 1993. urterako Estatuako enpresen %30 pribatizatu zen, baina badirudi ondoren prozesua moteldu egin zela, Richard Sakwa-k esaten baitigu 2001. urterako 2/3 bakarrik zeudela pribatizaturik¹⁵. Beraz, Estatuak ekonomian oso presentzia

¹⁴ Taibo (1995: 137-152).

* a.l. (138-139). Honek R. Aslund-i jarraitzen dio *How Russia became a market economy*, Washington, 1995, 184.-185. or., zeinek errusiar gobernuaren datuak erabiltzen dituen.

¹⁵ Sakwa (2002: 290).

handia izaten jarraitu zuen, zeren energia-produkzioa, telekomunikazioak eta defentsarekin erlazionatutako sektoreak bere esku gelditu baitziren; kalterik handiena zerbitzu sozialek jasan zuten.

Merkatuari dagokionez, hiru logika topa ditzakegu. Lehenengoa ekonomia aurrekapitalista eta aurreburokratikoa izango litzateke, trukeetan oinarritzen da eta ezkutuan egiten dela esan dezakegu. Bigarrena, berriz, erregimen komunistaren aztarna izango litzateke, ekonomia burokratikoaz ari gara. Estatua agente ekonomiko nagusia izateak agerian uzten du logika horrek mantentzen duen garrantzia. Hirugarren logika, azkenik, kapitalismo basatiarena izango litzateke zeinek lotura zuzena gordetzen duen talde mafiosoekin.

Beraz, Yeltsin-en agintaldiaren garaia krisi ekonomiko nabarmenak ezaugarritzen du. Zifra makroekonomikoei dagokienez, Errusiaren BPGa (Barne Produktu Gordina) hamar urtean % 50 murriztu zen, defizit publikoak hazkunde geldiezina jasan zuen, errubloak devaluazioak behin eta berriz pairatu zituen eta inflazioak (batez ere 1992-1995 urteen artean) izugarritzko tasa altuak erakutsi zituen. Badirudi 1995. urtean errusiar ekonomiak hondoa jo zuela, baina gobernua aurrera eramandako politikek ez zuten egoera hobetzeko balio izan. Aitzitik, pribatizazioen programak egoera txartzea baino ez zuen lortu eta izugarritzko injustizia soziala eragin¹⁶. Zifrek, beraz, krisi ekonomikoa erakusten digute, ez daukatenak zertan krisi edo arazo sozialik adierazirik beti, kasu honetan horrela den arren. Beste herrialde batzuen kasuan, zifra makroekonomikoak oso onak dira, baina bizi-baldintzek ez dute hobera egiten.

III-Errusiar gizarte berria

Orain arte errusiar sistema politiko eta ekonomiko berria nola eratu zen ikusi dugu. Alde batetik, 90eko hamarkadan sortu eta gaur egun arte mantendu den sasidekrazia errusiarrak kutsu sobietar handia gordetzen du, neurri handi batean, bere sortzaileari, Yeltsin-i, zor diona. Bestetik, ekonomia errusiarrak ere baditu elementu sobietarrak zein kapitalistak, zentzu horretan, ekonomia berezi bat ere bada. Horrek guztiak gizarte berri bat sortu du, izaera propioa daukana eta oraindik egokitzen ari dena. Atal honetan, gizarte horretako taldeak aztertuko ditugu, bai pribilegiatuak (edo egoera berriari etekina ateratzen diotenak), bai krisia pairatzen ari direnak. Gainera, gizarteak azaltzen dituen barne-dinamika eta joerak analizatzen saiatuko gara.

III.1-Ekonomiaren zuzendari “berriak” edo klase ahaltzua

Atal honetan bi fenomeno aztertuko ditugu bereziki. Alde batetik, errusiar ekonomiaren zuzendari berriak zeintzuk diren eta nola heldu diren horren buru izatera.

¹⁶ Taibo (1999: 223).

Bestetik, mafiak ekonomian hartu duen garrantzia eta botere politiko zein ekonomikoarekin daukan harremana.

III.1.1-Berregokituak eta onuradunak

Gizarte-sistema berriaren ezarrerak ez zuen elite zaharren iraulketa ekarri, historian askotan gertatzen den bezala, berregokitze-prozesu bat gertatu zen. Horrela, bi talde aurkitzen ditugu Sobietar Batasunaren oinordeko, nomenklaturako kide ohiak eta enpresa sobietar ohien zuzendariak, zeintzuek enpresaren baten jabetza edo sasi-jabetza lortu zuten. Horietaz gain, badaude aurreko garaian legez kanpoko ekintza ekonomikoetan jardun zutenak eta garai berriko enpresari berriren bat ere.

1991tik aurrera oligarkiaren eskuetan aberastasunak pilatzeko prozesu ikusgarriaz jabetzea oso interesgarria da. XX. mendearen amaieran Errusiako 36 pertsona aberatsenek BPGaren % 24 zeukaten beraien eskuetan, Estatu Batuetan, berriz, 227 pertsona aberatsenek BPGaren % 6 baino metatzen ez zutelarik¹⁷. Baina, nola eta zergatik gertatu zen hau?

Argi dago, Carlos Taibo-k azaltzen duen bezala¹⁸, pribatizazioak ez zirela «modu batere garbian» aurrera eraman. Hein handi batean gobernuaren bermea zeukan prozesuak ahalik eta azkarren amaitu nahi zuen sistema sobietarrekin¹⁹, ondorioz urtebetean Estatuko enpresen % 70 pribatizazio-prozesuan sartua zegoen. Baina ikus dezagun zeintzuk izan ziren oligarkek horietaz jabetzeko erabili zituzten metodoak.

Kasu batzuetan langileei bonoak erosi zizkieten prezio barrengarrietan, baina hori bai, oso salmenta ona egingo zutela konbentzitu ostean. Beste batzuetan, enkanteetan iruzurra erabiltzen zuten politikari eta funtzionario publikoen laguntzaz. Horretaz gain, «maileguak akzioen truke» programaren bitartez oso prezio merkeetan lor zitzaizketen enpresa publikoen jabetzak, trukean, itxuraz behintzat, defizit publikoaren zati batez arduratzen zirelarik. 1992 eta 1996 bitartean Estatuko enpresen % 57 pribatizatu zen, baina Estatuak soilik 3.000 eta 5.000 milioi dolar bitartean irabazi zituen. Oligarka multzo horren eraketa, jarduera ekonomikoak gobernutik erregulatuta ez egoteak, *perestroika*-ren garaian jabetza pribatuaren inguruan sortu zen nahasketak eta lehiakiderik ez egoteak ahalbidetu zuten.

Baina praktika *ustelak* ez dira hemen amaitzen, oligarken curriculumarekin katalogo bat egin baitaiteke: diruaren zuriketa, mozkinen ezkutatzea, kapitalen itzurpena eta paradisu fiskaletan ezartzea, kontabilitateko *trikimailuak*, influentzien erosketa, erlazioak talde mafiosoekin... Hemendik aurrera imajina ditzakegun praktika guztiak, behar izanez gero bortizkeriaz baliatuz, erabili zituzten.

¹⁷ Taibo (2006: 167).

¹⁸ a.l. 162.-163. or.

¹⁹ Horregatik aurreko esaldian komatxoaren erabilera. Egia esateko ez zegoen legedi argirik eta oso zaila da esatea momentu honetan zerk balio duen eta zerk ez.

Horren guztiaren aurrean agintariak nola jokatu zuten galderari erantzutea nahiko erraza da: haiek ere inplikaturik zeuden. Adibidez, Putin-ek aurrera eramanez duen politika hipokrita izan da. Paktu bat egin du oligarkekin, kritikatzeko baina beraien jabetzak ez dira ukitzen. Hori bai, suposatzen da hemendik aurrera ez dituztela legez kanpoko ekintzak aurrera eramango eta ez dutela politikan parte hartuko²⁰. Berak etekin politikoa lortzen du masaren aurrean oligarken aurkako pertsona indartsu gisa agertzen delako, eta era berean botere-monopolioa eskuratzen duelako. Besteek, ordea, beraien egoera zilegitzea edo *garbitzea* eta posizio ekonomikoa finkatzea lortzen dute²¹.

III.1.2-Mafia eta ustelkeria

Orain arte, oligarkek gaur egun mantentzen duten postua lortu eta finkatu ahal izateko metodo ustelak, Mendebaldeko Europako ikuspuntutik behintzat, erabili zituztela ikusi dugu. Baina arazoa ez da hor gelditzen, praktika horiek zerbait sistemiko eta endemiko bihurtu baitira Errusiar gizartearen. Gizartearen maila eta esparru guztietan praktikatzeko da eta gobernutik kondenatu arren, aurre egiteko beharrezko baliabiderik ez da jartzen, hein handi batetan beraien ere parte hartzen dutelako. Agian, horregatik planteatu beharko genuke ea ustelkeria-huts baten aurrean gauden edo ekonomia mota konkretu baten aurrean, zeinen barne-araudian onarturik dauden eta zilegi diren horrelako tresnak. Kasu askotan, zilegitasuna edo legalitatea ez du Estatuak ematen, ezpada gizartearen beste esparru batzuek onartzen duten zerbait da. Kasu horietan Estatu gertakarien atzetik joaten da.

Gizarte osoan zehar lehenagotik zegoen eroskeria hedatu egin zen. Yeltsin-en agintaldian % 171,2 hazi zen eta gaur egun ere hazteko joera dauka. Ustelkeriak toki garrantzitsu bat betetzen du funtzionarioen bizitzan, estimazioen arabera % 80k praktikatzeko du-eta. Poliziak ere lan kaskarra egiten du eta gainera eroskeriak kobratzen ditu²². Hezkuntzan, osasunean... arrunta da eroskeria erabiltzea zerbitzuak lortu ahal izateko. Horrez gain, hainbat postu administratibo eta politiko eskuratu ahal izateko dirutzak ordaintzen dira. Gainera, enpresen % 33k ez ditu zergak ordaintzen, eta beste heren batek datuak faltsutu egiten ditu gutxiago ordaindu ahal izateko. Egoerak penagarria eta era berean xelebrea badirudi ere, logika konkretu bat daukanaren irudia ematen du, hau da, ia edozein mekanismo erabil daiteke dirua eskuratzeko eta zerbitzuak lortzeko.

²⁰ Talde zuzendari edo oligarkiaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, D. E. Hoffman: *Los Oligarcas. Poder y dinero en la nueva Rusia*, Mondadori, Bartzelona, 2003. Oso era sakonean aztertzen ditu boterera heltzeko prozesuak eta boteretsuen arteko harremanak.

²¹ Bernstein-en (2004: 43) ustez, honek guztiak Putin-en inguruko jendearen eta oligarken arteko borroka estaltzen du, Errusiako enpresa nagusien ondarea lortzera zuzenduta egongo litzatekeena.

²² Armadaren kasua oraindik ere larriagoa izango litzateke; izan ere, «siguen sin controlarse en el ámbito militar: novatadas, robo y corrupción a gran escala incluidos el robo de armamento nuclear y el narcotráfico» (Blank, 2004: 58). Erromako Behe Inperioan jada armadako kideak (funtzio polizialak ere betetzen zituztenak) soldadu gisa tratatzen zituen legediak, baina baita lapur gisa ere (Pérez, 1998: 285). Beraz, Historian zehar ez da ezezaguna.

Paper garrantzitsua jokatzeko duen beste elementu bat mafia da²³. Estatuaren ahultzeak eta kapitalismoaren ezarrerak 70eko hamarkadatik zeuden praktika mafiosoek hedatzea ahalbidetu zuten. Sare mafioso horien praktiken artean hainbat delitu ekonomiko –estortsioak, zerga-iruzurrak, diruaren faltsifikazioak eta zuriketak, etab.– eta ekintza ilegal –droga-trafikoa, kontrabandoa edo armen salmenta– aurki ditzakegu. 1993an BPGren % 40 kontrolatzen zuten eta Mendebaldeko herrialdeetako mafiekin alderatuta, errusiarrek esparru guztiak kontrolatzen ditu, ez soilik legez kanpokoak²⁴.

Baina badago beste ezberdintasun nabari bat. Alde batetik, Mendebaldeko gizarteetako moralak ez ditu praktika horiek onartzen eta Estatuak, indartsuak diren heinean, erraztasun handiagoa daukate horien aurka borrokatzeko. Errusian, aitzitik, gizarteko segmentu batzuek, horietako batzuk oso garrantzitsuak (politika, ekonomia eta gizartearen gozoko mailako kideak), bertan parte hartzen dute. Banda horien gastuen herenaren eta erdiaren artean funtzionario, polizia eta epaileentzako eroskerian gastatzen dutela estimatzen da, hau da, berez Estatuak horiei aurre egiteko dituen tresnak erosteko. Horretaz gain, gobernuako kide askok horrelako sareetan parte hartzen dute, eta ez hori bakarrik, gobernuak berak ere bertan dirua inbertitzen bide du (Estatuaren hainbat enpresa ere pribatizazioen garaian mafien esku gelditu ziren).

Horrek baditu ondorio negatiboak; izan ere, irabaziak ez dira ekonomia errusiarrean inbertitzen, ezpada kanpora esportatzen dira edota sare mafiosoetan berrinbertitu²⁵. Gainera, dirutzaren parte handi batek Estatuaren kontrolari ihes egiten dionez, txirotze-prozesuan sakontzen du, eskaini ahal dituen zerbitzuen murriztapena ekarriz. Horretaz gain, zenbait ekintza espekulatiboren bitartez, aberastasun kopuru erraldoiak pertsona pribatuaren esku pilatzea ahalbidetu du. Badirudi, beraz, ekintza horien instituzionalizazioa dela Estatuaren sendotzen hasteko lehenengo pausoa, era horretan beraien gaineko kontrola lortuko baitu.

Azken urteetako datuen bilakaerak erakusten duenez, ez da sare mafiosoek deuseztapena gertatzen ari, finkapena baizik. Gaur egun enpresa bat irekitzea Yeltsin-en garaian baino zailagoa da. Horretaz gain, erailketen kopurua murriztu egin da era nabarmenean, 90eko hamarkadan 600-700 bitartekoa izatetik 2002. urtean bakarrik 70ekoa izatera²⁶. Horrek frogatuko luke logika mafiosoak finkatu eta onartu dela, ez baita beharrezkoa biolentzia muturrera eramatea. Gainera Errusia barnean badaude zona batzuk zeintzuetan Estatuaren desintegrazioa gertatzen ari den. Horren lekua elite lokal batzuek okupatu dute, zeintzuek harreman ugari dituzten legez kanpoko banda edo

²³ Service-k (2002: 349) uste du mafia hitza ez dela hoberena talde hauek izendatzeko eta berak «banda kriminalak» izendapena erabiltzea nahiago du. Bere ustez, mafia italiarra da eta errusiarrekin antzekotasun batzuk badituen arren, ezberdintzen dituzten ezaugarriak garrantzitsuagoak izango liriateke: eskualdetasuna eta bertan kompetentziaren onarpen eza, ohore-kode bat izatea...

²⁴ Taibo (1995: 131-132).

²⁵ *Ibidem*.

²⁶ Taibo (2006: 182).

mafiekin²⁷. Arestian esan bezala, Estatuak ekintza horiek guztiak instituzionalizatzen ez baditu, desintegrazio-prozesua uste duguna baino bizkorragoa izan daiteke lekuan lekuko eliteen boterea handitzen eta Estatuak eskualde horiek artikulatzea lortzen ez duen heinean²⁸.

III.2-Gizarte-aldaketak: urritasun komunitik txirotasun orokorrera

Atal honetan sistema berriak eragindako aldaketak aztertuko ditugu. Sistema guztiz finkatzen den bitartean komenigarria izango litzateke krisiaz hitz egitea. Izan ere, denboraren poderioz baino ez baitugu ikusiko ea gizartearen gehiengoak pairatzen duen egoera txarra abagunearen arabera edo estrukturala den. Gaur egungo Mendebaldeko Europako herritar baten ikuspuntutik aztertzen badugu, bigarrena askoz egoera txarragoa izango litzateke ustezko helburua gizartearen gehiengoaren ongizatea lortzea den heinean. Dena den, ideia hori europar gizartearen zati batek onartzen duen uste moral bat baino ez da. Munduko gizarte askotan, baita europar batzuetan ere, hori ez baita horrela.

Gizarteak bizitzaren arlo guztiak bere baitan hartzen ditu. Horregatik erlazionatu beharra dago politikarekin, ekonomiarekin, mentalitateekin, etab. Lan honetako lehenengo bi kapituluetan gai horien inguruan mintzatu garen arren, gure diskurtsoa ulergarriagoa izan dadin berriro ere gai berdintsu horietara bueltatzea beste erremediorik ez daukagu. Ondorioz, gorago aipatu ditugun ideia batzuk errepikadaitezke hurrengo puntuetan zehar.

III.2.1-Gurasorik gabeko gizartea

Gizarte-sistemek hasiera batean kaosaldi bat izan ohi dute egonkortasuna aurkitu eta finkatu arte. Errusiari dagokionez ere antzeko egoera aurkitzen dugu Gaidar-en aldaketen ostean, oso traumatikoak izan zirenak eta pertsonen mentalitatean eragin handia izan zutenak. Dударик gabe, irakurleari pentsarazi beharko lioketen gertakariak dira.

Estatua zen gizarte osoaren zuzendaria eta haren ongizatearen bermatzailea. Estatuak huts eginez gero, gizartearen egoerak okerrera egingo zuen eta horrela gertatu zen²⁹. Estatuak ez zeukan dirurik eta ezin izan zien *koljozniki*-ei, landa-munduko eremu kolektibizatuetakoko nekazariei, ordaindu. Horiek partzela pribatu batzuk zeuzkatelako biziraun zuten zeintzuetatik ateratako produktuetatik elikagaiak lortu eta soberakina saltzen zuten, baina produkzioak behera egin zuen era nabarmenean. Langileen artean,

²⁷ Carlos Taibo-k gune horiei «zulo beltzak» deitzen die.

²⁸ Arrazoi honegatik Putin gobernura heldu zenetik Estatuaren berreraiketa lehentasunezko gaia bihurtu da. Bernstein (2004: 42).

²⁹ Service-k (2000: 477-479) egoera honetaz nahiko zirriborro egokia egiten du eta puntu honetan berari jarraituko diogu.

berriz, elikagaiak landatu ahal izateko lur esparru bat zeukatenak bazeuden arren, horrelakorik ez zeukatenek oso gaizki pasatu zuten zailtasunak zituztelako elikagaiak eskuratzeko. Kasu askotan, luberritzeak egin behar izan zituzten hirien kanpoaldean nekazaritza-produktuak landatu edota untxi, txerri edo behiak hazteko.

Era berean, meategi, bulego eta lantegietan ere langileei ordaintzeko dirurik ez zegoenez, ez ziren ordutegiak betetzen eta ondorioz produkzioak ere behera egin zuen. Jende askok bere soldata zigarroak metroan salduz osatzen zuen. Pentsionistek ere arazoak zituzten eta errenkadak egiten zituzten premiazko produktuak erosi eta ondoren kalean prezio bikoitzean saltzeko. Ziur asko gertakari hauek guztiak Errusiak garai horretan bizi izan zuen hiperinflazioarekin harremandu behar ditugu.

Txoke Planak sobietar ereduak sorrarazitako *erdi-mailako klasea* desagerrarazi zuen. Maila hori osatzen zuten kideen kopurua ez zen Mendebaldeko erdi-mailako klasea bezain zabala, baina beraien presentzia garrantzitsua zen Errusiaren historian, batez ere demokrazia eraiki nahi zutenez gero, Mendebaldeko erdi-mailako klasearen idealak zituztelako³⁰. Oso talde heterogeneoa zen eta gobernuko enplegatuek, kulturako kideek, irakasleek, ikertzaileek... osatzen zuten. Baina Richard Sakwa-k dioen bezala, talde horren presentziak ez zuen demokraziaren ezarrera bermatzen, bi mundu-gerren arteko Alemaniako gertakariak egiaztatzen duten bezala³¹.

Jende gehienarentzat merkatu-ekonomia hiri guztietan zehar hedatu ziren salmahai mugikorretan islatzen zen. Horrelakoetan era guztietako produktuak eros zitezkeen, alkohola, freskagarriak, bibliak... baita nahiko urriak ziren etxerako produktuak ere. Segituan errusiar merkatu ikaragarri handira atzerriko produktuak sartzen hasi ziren eta enpresa errusiarrek ere beren produktuak atzeritarrak balira bezala aurkezten zituzten (baita vodka ere). Prezioak oso altuak ziren eta etekinak izugarri handiak.

Lanpostua zeukatenek mantendu egin zuten, bainakobratu barik edo soldaten kobruetan atzerapenekin. Ondorioz, gorago aipatu ditugun praktikak edo eroskeriak jasotzea arrunta bihurtu zen. Salbuespena armadako kideak izan ziren. Sobietar Batasunetik sakabanatuta zeuden kideak Errusiarra bueltatu ziren, baina ez zegoen lanik ez etxerik haientzat, eta muturreko kasuetan komun publikoetan instalatu zituzten. Baina ez ziren etxe gabe zeuden bakarrak, jende asko hirien kanpoaldean kanpindendetan bizi baitzen. Gizartearen gehiengoa astintzen zuten hainbat arazo zeuden, besteak beste, osasun-zerbitzuaren narriadura, osasun-arazoak sorrarazten zituen kutsadura, segurtasun falta industriari eta familien diru-sarreraren murriztea, baina konponbidea ez zegoen jende arruntaren esku. Bizi-baldintzak II. Mundu Gerratik ez ziren hain txarrak izan, eta garai beretik jendeak ez zuen Estatutik horrelako abandonua pairatu.

³⁰Reddaway eta Glinski: (2001: 307).

³¹ Sakwa: (2002: 305).

Aberatsen eta txiroen arteko distantzia handitzen joan da eta biztanleriaren kopuru oso zabal batek sekulako arazoak ditu biziraun ahal izateko, 1999an adibidez populazioaren bi bostenak txirotasunean bizi ziren³². Hurrengo urtean, populazioaren % 12 langabezian zegoen, sobietar garaian jende guztiak lana zeukan bitartean. Horretaz gain, Estatuak ez dauka dirurik horiei guztiei diru-laguntza duin bat eman ahal izateko. Gainera, jende gehienak bi lanen beharra dauka soldata osatu ahal izateko, segurtasun eta babes sozial gabekoak direnak. Dena dela, pobrezia mailaren azpitik bizi den populazio kopurua kalkulatzeko oso zaila da, Estatuaren kontroletik at hainbat elementu baitaude, ekonomiaren zati handi bat legalitatetik kanpo mugitzen baita, trukeak areagotu baitira, lursail txikietan produzitutakoak garrantzia hartu baitu, etab. Estatuak Estatistika Institutuak (*Geoskomstat*) kalkulatu du sarreraren % 30 eta 40 artean kontabilizatu gabe gelditzen dela (ziur asko zifrak puztuta daude)³³.

Baina talde sozial kaltetuenak jubilatuenak, elbarrituenak, alkoholikoak eta semedun eta etxe gabeko amak izan dira zeintzuek eskaletasunera jo behar izan duten. Autoreek hainbat arrazoi ematen dituzte horien egoera aztertzeko, jubilatuen kasua deskribatuko dugu hemen. Alde batetik, pentsioak betidanik oso eskasak izan dira. Bestetik, Perestroikaren garaian gutxiak ikusi zituzten aurrezkiak, eta 1992. urteko hiperinflazioaren ondorioz guztiz galdu zituzten. Azkenik, gorago azaldu dugun bezala, osasun-sistemaren ondoratzea aipatu behar dugu, ezin baitute osasun-zerbitzu pribatu bat ordaindu³⁴. Hala ere, erlazio zuzena dago kasu honetan ere estatu-egituren hondoratzearen eta bizi-baldintzak txartzearen artean, Estatuak ez baita horien guztien kargu egiteko gai.

Biziraupen mailaz azpiko biztanle kopurua³⁵									
	1992	1995	2000	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Miloi pertsonak	49,3	36,5	42,3	35,6	29,3	25,2	25,2	21,5	18,9
Biztanleriaren ehunekoak	33,5	24,8	29,0	24,6	20,3	17,6	17,7	15,2	13,4
Aurreko urtearekiko ehunekoak	...	110,9	84,9	89,0	82,3	86,0	87,7	85,3	87,9

Oro har, Gaidar-en Txoke Planaren ondorio ekonomikoak hartu dira kontutan. Baina, Carmen Claudín Urondok azpimarratu du benetako Txoke Plana mentalitatean gertatu zela, izugarritzko aldaketei egokitzen jakin behar izan baitzuten³⁶. Bere hitzetan

³² Service (2002: 341).

³³ Taibo (2006: 189).

³⁴ Taibo (1995: 182-183).

³⁵ <http://www.gks.ru/wps/portal/english>. Errusiako Estatu Federaleko Estatistika Zerbitzuko web orritik hartutako datuak. Egile ezberdinek zalantzan jartzen dituzte aurrerago ikusiko dugun bezala. Ikus. hurrengo puntua.

³⁶ Claudín (2002, 2004).

«Esta conmoción psicológica ha sido una prueba mucho más dura, más extenuante, que las propias dificultades materiales que siempre fueron el pan nuestro de cada día de todo ciudadano soviético de a pie»³⁷

Dena dela, ideia hori ñabartu egin beharko litzateke, datuak hor baitaude eta benetan esanguratsuak dira hurrengo puntuetan ikusiko dugun bezala, datu bat aipatzearen, 1998ko finantza-krisiaren ostean biztanleriaren % 38 pobrezia mailaz azpitik bizi zen eta 2002an % 30³⁸. Beraz, errealitateak kasu honetan shock eta aldaketa mentala eragingo zuen. Gure ustez, nahiko argi dago *mundu berri* bat dela, gizabanakoaren bizitzaren esparru garrantzitsuetan Estatuaren bermea galdu duen mundu bat.

Orain arte Errusiako gizartea arazo sozioekonomiko ugari eta oso larriak pairatzen ari dela ikusi dugu. Estatu ez da gai norbanakoen segurtasuna bermatzeko, ez soziala, ez ekonomikoa ezta krisiari irtenbidea topatzeko ere. Hori horrela izanda ere, Amnistia Internacional-en artikulua batean arrazakeria hazkundera doala irakur daiteke

«El Estado tiene la obligación de proteger los derechos humanos de todas las personas que haya en su territorio, independientemente del color de su piel. Debe perseguir y poner a disposición judicial a quienes los violen. Es hora de que las autoridades rusas aborden la trayectoria cada vez más negativa del país en materia de derechos humanos y cumplan con sus obligaciones internacionales, si es que quieren desempeñar una función en el panorama internacional», eta ez hori bakarrik, baizik eta «dar a la lucha contra el racismo la prioridad que merece»³⁹.

Epai dezala irakurleak, baina gure iritziz errusiar Estatuak baditu beste lehenetasun eta arazo batzuk, horietako askori, orain arte ikusi dugunaren arabera, aurre egiteko ez da gai, nahiz eta bere biziraupena jokoan egon. Beraz, pentsa daitekeen bezala, arrazakeriaren aurkako borroka (edo momentu honetan bigarren mailakoak diren beste arazo batzuek) ez du errusiar Estatuaren agendan lekurik.

III.2.2-Sistema Berriaren arazoak edo Sistema Zaharraren kolapsoa

Gaidar-en garaiko neurriek ezberdintasun sozialak areagotu zituztela ez du inork ukatzen⁴⁰. Carlos Taibo-k⁴¹ bere iturrietatik jasotzen dituen datuek argi eta garbi erakusten digute polarizazioaren ideia. Populazio aberatsenak 1980. urtean aberastasunaren % 19 zeukan; 1992an, aldiz, % 33 kontrolatzen zuen eta hurrengo urtean, %42. Horretaz gain, pribilegiatuenean etxeetan luxuzko produktuak edonondik topa zitezkeen.

³⁷ a. l. 9. or.

³⁸ Service (2002: 353).

³⁹ www.amnesty.org/es/library/info/EUR46/018/2006.

⁴⁰ Dena den, badago Txoke Planaren neurriak hain era gogorrean burutu ez zirela esaten duenik ere. Service-ren (2002: 354) ustez, Yeltsin eta Putin-ek desordena soziala sortzeari beldurra ziotenez politika zoro hori ez zuten burutu. Politikariek populazioa biziraupen mailaz azpitik gelditu ez zedin gutzia kalkulatu zutela dio. Baina hori horrela izan bazen, ondorengo gertakariak adierazten digute ez zituztela batere emaitza onak lortu.

⁴¹ Taibo (1995: 177-179).

Bitartean, 1992. urtean biztanleriaren erdia pobrezia mailaz azpitik bizi zen eta hurrengo urtean hiru laurdena. Soldatak prezioak baino askoz gutxiago igotzen ziren eta erosahaltenaren galera egunetik egunera handitzen zihoan. Ondorioa izan zen elikagaiak erostera bideratutako diru-sarreraren kopurua oso epe motzean hazi egin zela, % 34 1991n, % 50 1992ko otsailean eta % 70 urte horren amaieran. 1993an 1991n baino zazpi aldiz gehiago gastatzen zuen jendeak elikagaietan. Baina gainera, errusiarren dieta askotarikoa izatetik proteina gutxikoa izatera pasatu zen zeinetan patatak eta ogiak dietaren gehiengoa osatzen zuten.

Estatuak ezin ziren zituen gastuei aurre egin. Gertatzen ari zena zen kapitalismoaren ezarrerarekin *laissez faire* politika martxan jarri beharra zegoela, baina ezinezkoa zen egun batetik bestera Estatuak zituen funtzio guztiak bertan behera uztea eta modu pribatu batean funtzionatzea. Kriaren ondorioz sorgin-gurpil bat jarri zen martxan, Estatuaren diru-sarrerak geroz eta urriagoak ziren eta aurre egin beharreko gastuak geroz eta gehiago. Hori horrela izanik, osasun- zein hezkuntza-zerbitzuen txartze-prozesu bat gertatu zen.

Dena den, krisiak aurreko egoera txarraren areagotzea baino ez zuen eragin. Gezurra badirudi ere, gizarte komunistaren zuzendarien politika bi aspektu sozial horietan nahiko etsigarria izan zen. Joan den mendeko 60ko hamarkadatik, inbertsioen kopurua eremu horietan jaisten joan zen. Hala ere, Yeltsin Nazioarteko Moneta Bankua -en agintaldian zerbitzu publiko horien desintegrazio progresiboa gertatu zen. Osasun-sistemaren hornikuntza-arazoak ikaragarriak ziren, ospitale eta kliniken % 70ek ez zituen arau sanitario eta higienikoak betetzen, osasun prebentiboak ez zion biztanleriaren erdiari baino probetxu egiten eta gaixotasun arriskutsu ugari hedatzen hasi ziren (kolera, malaria, disenteria...). Hezkuntza-sisteman, berriz, eskoletako baliabide-urritasuna ezaugarri komuna zen, ikasleen pilaketa oso handia zen eta erantzun instituzionala ez zen batere eraginkorra izan.

Horretaz gain, krisiak antzeko ondorio zein erantzunak azaldu zituen bi zerbitzu horietan. Medikuek zein irakasleek soldaten jaitsiera nabarmena pairatu zuten eta askotan beste lanbide batean jardutea erabaki zuten. Horretaz gain, zerbitzu pribatuak hedatu egin ziren, batez ere maila pribilegiatuen eskaria asetzeko sortutakoak. Gainera, epe motzera ez zirudien arazoei irtenbidea emango zitzaienik (eta horrela izan da), osasun-sistema bere zerbitzuak soilik biztanleriaren erdiari emateko gai baitzen eta osasun-zerbitzu pribatu bat sortu gabe baitzegoen (hala ere, jendearen gehiengoak ezin izango ziren gastuei aurre egin). Hezkuntza-sisteman, ez zekiten zein instituziok egin behar ziren aurre gastuei, gobernu federalak, errepublikek... bestalde, sistema politiko, ekonomiko eta sozial berriari egokitzeko beharra zegoen zeinek gastu-xahupen handi bat egitea suposatzen zuen (materia horretan gastatzeko ez zegoena).

Horri guztiari gehitu behar diogu hustuketa demografiko progresiboa⁴². 1987. urtean jaiotzen kopurua bi milioi eta erdikoa bazen, 1999. urtean 1.215.000koa izan zen, erdia baino gutxiago. Iragarpen guztiek egoerak *txarrera* egingo zuela zioten; horietatik optimistenek 2050. urtean 102 milioi biztanle izango zirela zioten⁴³. 2003. urteko jaiotza-tasa milako 10,4koa zen bitartean, heriotza-tasa 16,5ekoa zen. Bizi-itxaropenak jaiotzean ere behera egin du, azken berrogei urteetan gertatzen ari zen prozesua bazen ere, independentziaren garaitik areagotu egin da. Horretaz gain, 1999. eta 2002. urteen artean heriotza-tasa % 10 hazi zen faktore ezberdinak direla-eta: alkoholismoa, istripuak, segurtasun-arauen hausteak, ingurumenaren degradazioa eta osasun-sistemaren ezegonkortasun eta gabeziak⁴⁴.

Emakume bakoitzeko seme-alaba kopurua ere jaitsi egin da⁴⁵, 80ko hamarkadaren hasieran 2 izatetik 2001ean 1,17 izatera pasatu delarik. Jaitsiera horri abortuen kopuruak oso altuak izateak ere laguntzen dio, ia emakumeen heren bati eragiten baitio. Iritzi hori C. Taibo-k ñabartu egiten du; izan ere, nahiz eta oso altu mantendu —130 abortu 100 jaiotzako—, murriztu egin baitira, 1990. urtean 4 milioi izatetik 2000n 2 milioi izatera pasatu da⁴⁶. Horretaz gain, errusiar gazteen artean europar jokabidea hasi da hedatzen, antisorgailuen erabileraren ugaltzea, ezkontza berantiarrak, bizitza bikotean ezkontzatik at, seme-alaba gutxi izatea...

Esan beharra daukagu Errusiaren despopulazte hau oso era desorekatuan gertatu dela. Eskualde batzuetan, batez ere mendebaldean, Mosku inguruan, populazioaren pilatze bat gertatu den bitartean, Ekialde Urrunak biztanleriaren % 15 galdu du, Chukotkako eskualdeak Nazioarteko Moneta Bankua, adibidez, bere biztanleriaren bi herenak galdu zituen 1989 eta 2002 bitartean. Horretaz gain, Sakwak aipatzen du lehen jendea landatik hirietara joaten zela baina orain kontrako prozesua gertatzen ari dela, hiriak pixkana husten doazelarik⁴⁷.

⁴² Paragrafo honetako datuak, Taibo (2006: 201)


⁴³ Azken urteetako bilakaera eta gaur egungo populazioaren kopurua ezagutzeko ikusi beheko grafikoa.

⁴⁴ Lan honetan landu ez ditugun gaiak izan diren arren, autore gehienek aipatu eta jorratzen dituzte.

⁴⁵ Sakwa (2002: 306).

⁴⁶ Taibo (2006: 202).

⁴⁷ Sakwa (2002: 311).



Iturria: Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea (FAO), 2005. urtea⁴⁸.

IV-Etorkizuneko Errusia

Vladimir Putin-ek presidente kargua zortzi urtez bete ondoren —Errusiako Konstituzioak baimentzen dituenak—, bere postua Dmitri Medvedev bere lagunari utzi dio, nahiz eta oposizioko kideek eta atzerriko begiraleek hauteskundeetan iruzurra egon dela salatzen duten. Bitartean berak Lehen Ministro kargua hartu du bertatik gobernatzen jarraitzeko. Boterearen monopolizazio-prozesua martxan da eta geldiezina dirudi.

Ekonomian ere antzerako zerbait gertatzen da. Oligarkek kontrolatzen dute BPGren parte handiena sare mafiosoekin harreman zuzenean. Arestian ikusi dugun bezala, Putin-ekin paktu bat egin zuten horietako batzuek beraien dirutza eta posizioa mantendu eta sendotzeko asmoz. Presidenteak oligarkak klase moduan desagerraraziko zituela esan bazuen ere, enpresa handien eta legea aplikatzeko Errusiak dituen organismoen arteko harremanak sendotu egin dira. Horretaz gain, Putin-ek Estatuko funtzioetan promozionatutako pertsonetako (gehienen jatorria armada edo polizia da) batzuek beste oligarka batzuen postua hartuko dute. Beraz, hemendik gutxira bi funtzioak (Estatuko funtzionario eta oligarka postua) beteko dituzten pertsona batzuk aurkituko ditugu. Laburbilduz, oligarken estratua mantendu egingo da aberastasuna eskuz baino aldatuko ez delarik⁴⁹.

⁴⁸ <http://es.wikipedia.org/wiki/Rusia#Estad.C3.ADsticas>.

⁴⁹ Bernstein (2004: 49).

Estatu zentrala ekonomikoki zein politikoki indartzen saiatu den arren, gorago aipatu bezala, eskualde batzuk agertzen hasi dira zeintzuetan botere lokalek ez *de iure*, baina bai *de facto* boterea eskuratu duten. Horiek harreman ugari dituzte delinkuentzia antolatuko taldeekin (mafia) zeintzuek Errusiar Federazioaren sorreratik ekintza kapitalista handi zein txikiei legalitatearen barnean garatzeko marko legal eta juridiko egokia ematen ez jakiteaz aprobetxatu ziren⁵⁰. Gure ustez, Estatua sendotzen hasteko lehen pausoa praktika horien instituzionalizazioa izango litzateke. Horrela, ematen dituzten onurez probetxua atera ahal izango du. Izan ere, sistema berrian sare mafiosoak hain daude hedatuak ezen Estatu errusiarrek ez baitauka ezerezteko gaitasunik. Botere lokalei dagokienez, biderik hoberena beraien kolaborazioa bilatzea dela dirudi, beste eskualde batzuetan egin den bezala. Hala ere, arazo nagusietako bat Estatuak bildutako dirua burokraziaren poltsikoan amaitzea ekiditea izan daiteke⁵¹.

Historialarien artean pesimismoa da nagusi. Kontsultatu ditugun lan gehienetan balorazio negatiboak aurkitzen ditugu⁵². Baina horren azalpena Carmen Claudin-en ondorengo aipamenarekin erraz ulertuko du irakurleak: «(Se observan características que a Rusia) no permiten desahuciarla para siempre de la posibilidad de un porvenir democrático»⁵³. Historialariek Errusiarentzako nahi dutena demokrazia da, biolentziaren erabilera eza, jendearen bizi-baldintzak hobetu daitezela, etab. Baina ez dirudi bide hori daramanik, guk justu kontrakoa esango genuke. Gaur egungo Errusiak ez dauka zerikusirik Mendebaldeko Europako herrialdeekin eta ziur asko gaur egun mundu mailan zilegitasun maila altuena ematen duen erregimen politikoa demokrazia izango ez balitz, Errusian aurkitzen dugun erregimena ez lukete irudi horren pean ezkutatuko. Errusia berri bat da.

Gizarteari dagokionez, oraindik garatzen ari da eta guztiz finkatzeke dago. Baina prozesu ezberdin batzuk antzeman daitezke. Alde batetik, gizartearen bipolarizazioa ikusten dugu, aberatsak geroz eta aberatsagoak dira eta pobreak gero eta txiroago⁵⁴. Bestetik, biztanleen kopurua jaisten ari da eta ratio guztiek *txarrera* egin dute. Oraindik oso nabaria ez den landatartze prozesu bat hasi da igartzen. Hala ere, ez zaio garrantzia kendu behar; izan ere, 1917tik ez zen horrelako jende kopururik egon landa-munduan ezarri nahi zuenik⁵⁵. Horretaz gain, ustelkeria sistemikoa da, hein handi batean

⁵⁰ Claudín (2002: 10).

⁵¹ Bernstein (2004: 49).

⁵² Adibide batzuk jartzearen, Service (2002: 349) «La elite rusa a todos los niveles es una amalgama de elementos económicos, políticos y criminales. Es una situación lamentable y enrevesada». Claudínek (2002: 11) honako hau dio «la reemergencia de brotes xenófobos, son lo peor de la etapa actual por cuanto representan de regresión política y social». Taibok (1995: 266) «el proceso de cambios en Rusia no discurre por el camino deseado y que las perspectivas de futuro, en consecuencia, no son precisamente halagüeñas».

⁵³ Claudín (2002: 11).

⁵⁴ Taibo (2006: 188) Tarteko taldeak desberdintzen dituen arren, oro har esan daiteke populazioaren 3/4ak txirotasunarekin harreman estua daukatela edo edukitzeko posibilitate handiak dituztela.

⁵⁵ Service (2002: 339-340).

Estatuaren ahuleziak ahalbidetzen duena. Azken gertakari horrek, beste gauza batzuen artean, eskualde batzuetan elite lokalek funtzionario publikoen laguntzarekin boterea eskuratzea permititzen du, edota mafiaren papera gizartearen maila sozial eta esparru politiko eta ekonomiko guztietan hain garrantzitsua izatea.

Ikusten ditugun ezaugarriak sinpleki gizarte berri batenak dira zeinetan boterea zilegitzeko, aberastasuna pilatzeko, gizartea kontrolatzeko eta, oro har, mundua ulertzeko mekanismo eta erak oso ezberdinak diren sobietar, mendebaldar zein Hirugarren Munduko gizarteetakoekin alderatzen baditugu.

Bibliografia

- EGILE ANITZ (2004): “Rusia. Democracia y autocracia”, *Vanguardia Dossier*, **9**.
- ANDREFF, W. (2004): “El capitalismo ruso”, *Vanguardia Dossier*, **9**, 38-43.
- CLAUDÍN, C. (2002): “La sociedad de Rusia: entre el cambio y la continuidad”, *Revista CIDOB d’Afers Internacionals*, **59**, 7-11.
- , (2004): “Cambios sociales, una revolución cultural silenciosa”, *Vanguardia Dossier*, **9**, 62-69.
- BERNSTEIN, J. (2004): “El ‘caso Yukos’ la oligarquía ha muerto, ¿larga vida a la oligarquía?”, *Vanguardia Dossier*, **9**, 44-49.
- BLANK, S. (2004): “¿Unas nuevas fuerzas armadas rusas?”, *Vanguardia Dossier*, **9**, 57-61.
- PÉREZ, D. (1998): “Defensa y territorio en la sociedad Peninsular Hispana durante la Antigüedad Tardía (ss. V-VII)”, *Studia Historica. Historia Antigua*, **16**, 281-300.
- REDDAWAY, P. eta GLINSKI, P. (2001): *The tragedy of Russia’s Reforms. Market Bolchevism Against Democracy*, United States Institute of Peace Press, Washington D.C.
- SAKWA R. (2002): *Russian Politics and Society*, Routledge, Londres.
- SERVICE, R. (2000): *Historia de Rusia en el siglo XX*, Memoria Crítica, Bartzelona.
- , (2002): *Rusia, experimento con un pueblo*, Siglo XXI, Madril.
- TAIBO C. (1995): *La Rusia de Yeltsin*, Síntesis, Madril.
- , (1999): *La Unión Soviética. El espacio ruso-soviético en el s. XX*, Síntesis, Madril.
- , (2006): *Rusia en la Era de Putin*, Catarata, Madril.